

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2011ko abenduaren 14a. VIII. urtea. 2.324. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Munduari begira jarri da egunotan Tolosaldea, Kultura Arteko Topaketekin

Alegian, Ibarra, Tolosan eta Zizurkilen hainbat egitasmo antolatu ditu Tolosaldea Garatzeneko Immigrazio sailak: ipuin kontaketak, erakusketak, antzerkia, Tolosa Kantari...

Egitasmoaren barruan Litaarafu elkarte aite irekien jardunaldiak egiten ari da Tolosako bere egoitzan, islamaren eta musulman kulturaren berri emateko **2-3**



Litaarafuren egoitzak mezkita bezala funtzionatzen du, eta bertan egiten ari dira aite irekien egitasmoa. I.G.

Berdintasunarekiko grina sortzea helburu duten hitzaldiak, Tolosan

'Parekidetasunean formakuntza' ikastaroa eskaini du Josebe Iturrioz berdintasun teknikariak; etzi, Bilgune Feministako Miren Aranguren txanda izango da **4**



Josebe Iturrioz berdintasun teknikaria, hitzaldiko une batean. L.URKIZU

Errausketa zerbitzu berrira martxan!
Errausketa kate propioarekin

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Kultur aniztasuna, topagune

Hainbat herritan Kultura Arteko Topaketak antolatatu ditu eskualdeko Immigrazio sailak egun hauetan

Imanol Garcia

Hilaren 18an Etorkinaren Nazio-arteko Eguna da, eta horren harira Kultura Arteko Topaketak koordinatu dituzte Tolosaldea Garatzeko Immigrazio sailetik. Alegian, Ibarra, Tolosa eta Zizurkil hainbat egitasmo ari dira gauzatzen: erakusketak, elkarteak ezagutzeko aukera, ipuin kontaketa, antzerkia...

Egitasmoetako bat Litaarafu (arabiarrez *ezagutzeko* esan nahi du) elkarte burutzen ari den ate irekien saioak dira. Bere egoitza Tolosako San Frantzisko etorbideko 28. zenbakian dago, eta mezkita bezala funtzionatzen du. Islama eta musulman kultura ezagutzeko aukera ematen dute ate irekien ekimenarekin. Gaur eta bihar egongo dira, 10:00etatik 12:00etara.

Azokoan, esaterako, elkarte hiru kide izan ziren bertan: Rashid Bensaoula, Ben Ali eta Thamer Birawi. Mezkitik hasieran eta historian izan duten funtzio anitza nabarmendu zuten: «Mezkita bat ez da bakarrik erreztzeko leku bat. Elkartzeko leku bat da, ikasteko, ospakizunak egiteko...».

Elkarteak hiru urte ditu eta bere berri emateko «gogo handiak» dituztela esan dute. Birawik azaldu zuenez, «etorkinak garenok behar handiagoa izaten dugu gure kultura eta gure erlijioa elkarbanatzeko gizartearen beste kideekin». Birawik gaineratu duenez, musulmanek gaur egun «irudi ezkorra» dute: «Islama eta musulmanen inguruko ezin ulertua dago, aurreiritziak eta informazio txarra dau-

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldia, bi autorentzako garaia, txokoa, jardina eta trastelekua. Interesatuak deitu 678 267657 telefono zenbakira.

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Tolosan etxebizitza alokatzen da. Interesatuak deitu 635 706 843 telefono zenbakira.



Litaarafu-ko kideak elkartearen egoitzan. I. GARCIA

delako. Alde batetik, ezjakintasuna dago, eta bestetik kanpainak daude islamarri eta musulmanei irudi ezkorra emateko». Irudi hori aldatzeko nahia dutela azaldu dute elkarte kideek.

Musulmanek eta islamak duten «irudi ezkorra» aldatu nahi dute Litaarafutik

Bere aldetik, musulmanentzat otoiak duen garrantzia nabarmendu zuen Bensaoulak: «Jaungoikoa da handiena» hitzekin hasien dugu otoiak. Horrekin eta eskuiekin egiten dugun imintzioarekin, buruan ditudan arazo guztiak alde batera uzten ditudala adierazten dut». Modu horretara «arinago» sentitzen direla dio Bensaoulak: «Jaungoikoarekin

hizketan nago. Beste guztiak ez du garrantzirik une horretan». Otoiaren ondoren, musulmana arazoei indar handiagoz aurre egiteko sentitzen dela gaineratu du Litaarafuko kideak.

Kultur Arteko Topaketen barruan egin ari diren ate irekiez gain, aurrera begira islamarri eta elkarteari buruz interesa duten norbanakoak eta taldeak elkarteekin harremanetan jarri daitezke, 686 971 962ra deituz.

Umorea eta aldarrikapena

Egitarauan antzerkiarentzat leku bat egin dute: Barakaldoko De AQUI y de Alla taldeak *Princesas y príncipes en prácticas* antzezlan taularatuko du Topic-en. *Funtzioa amaitu* da obraren bertsioa da beraien lana. Hasieratik antzezlan desmuntatu egiten da eta publikoari parte harrarazten

zaio obraren lekuaren eta orduaren inguruko gaizki ulertuan.

Une horretatik aurrera, antzeko langileak dira eszenatokia bere gain hartzen dutenak, eta ikuslegoak alde egin ez dezan saiatzen dira. Trama hori benetan aitzakia da eszenatokiaren atea irekitzeko eta profesionalak ez diren aktoreen inprobisazioak ikusteko. Antzerki taldeak zehaztu duenez, «umorezko lana da, baina ez zaigu ahaztu lan prekarietatearen zenbait egoera islatzen. Hala ere, gure helburu nagusia elkargune bat sortzea izan da beti, librea eta gozamenarako».

Hiru erakusketak bisitatu ahal dira egunotan eskualdean: Tolosan *Babel: munduko ipuinak, munduko kulturak*, Ibarra *Jatorri anitz* eta Alegian *Emakumea, etorkina, bizilaguna*. Datorren astean Zizurkil ikusi ahal da egun hauetan Tolosan dagoena.

Ipuin kontaketa ere ez dira faltako. Horietako bat Tolosan egingo da, haurrei zuzendua, eta Errusia, Txina eta Ekuadorreko ipuinak entzun ahal izango dira. Beste kontakizuna, honakoa helduentzako, Zizurkil egingo da,

↓ Egitaraua

ALEGIA

■ **Abenduaren 18a bitartean.** *Emakumea, etorkina, bizilaguna* erakusketak kultur etxean, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 21:00etara.

IBARRA

■ **Abenduaren 15a bitartean.** *Jatorri anitz* erakusketak, kultur etxean. 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

TOLOSA

■ **Abenduaren 18a bitartean.** *Babel: munduko ipuinak, munduko kulturak* erakusketak, haur liburutegian. 17:00etatik 20:00etara.

■ **Abenduaren 15a bitartean.** Litaarafu-Ezagutzeko elkartearen ate irekiak: *Islama eta musulman kultura ezagutzeko aukera*. San Frantzisko 28an, 10:00etatik 12:00etara.

■ **Abenduaren 16an.** Errusia, Txina eta Ekuadorreko ipuinen kontaketa. Haur liburutegian, 18:00etan.

■ **Abenduaren 18an.** De AQUI y de Alla antzerki taldearen eskutik, *Princesas y príncipes... en prácticas* antzezlan. Topic zentroan, 19:00etan. Sarrera doan izango da.

■ **Abenduaren 31n.** Tolosa Kantariaren saioa. 12:00etan elkartuko dira Tontokalen.

ZIZURKIL

■ **Abenduaren 19tik 23ra.** *Babel: munduko ipuinak, munduko kulturak* erakusketak, Atxulondo kultur etxean.

■ **Abenduaren 20an.** *Patera de cuentos* ahozko narrazio berbera gaztelaz, Mohamed M. Hammuren eskutik. 19:00etan, Atxulondo kultur etxean.

eta ahozko narrazio berbera entzun ahal da bertan.

Tolosa Kantari egitasmoak Kultura Arte Topaketetara gehitu dira. Abenduko azken larunbatean elkartuko dira euskal abesbiak kantatzeko. Oraingoan ukitu berezia izango du, hainbat jatorriko tolosarrek parte hartuko baitute kalejiran.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

MENDI-ALDE
Jatetxea

Eguneko menuak eta karta Bataioak, Jaunartzeak...

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Aurpegi soil batzuk baino askoz gehiago dira



Panel ezberdinetan daude jarrita Euskal Herrian bizi diren eta jatorri anitza duten bizilagunak. E. MAIZ

‘Jatorri Anitz’ argazki erakusketa Ibarra kultur etxean dago; argazkien informazio asko ezkututzen dute

E. Maiz Ibarra

Atetik sartu, eta aurpegi ezberdinekin egiten da topo *Jatorri anitz* erakusketan. Aurpegi soil batzuk baino gehiago dira bertan ikusten direnak. Aurpegia goitik behera jaitsi, eta hainbat galderen erantzunak, eta beraien herrialde eta familien argazkiak ikus daitezke.

Erakusketaren helburua, etorkinen errealitatea islatzea eta ezagutzera ematea da. Ekuador, Txina, Badajoz, Maroko, Senegal, Errumania, Argelia, ... etorkinak dira. Eta «nolakoa da zure lurraldea? Zergatik migratu duzu? Zer botatzen duzu faltan? edota nolakoa harremana duzu hemengo jendearekin?», galderei erantzuten diete.

Benito Izagirre kultur etxean 10:30etik 13:00era eta 15:30etik 21:00etara egongo da zabalik.



‘Emakumea, etorkina, bizilaguna’ erakusketa hilaren 20a bitartean egongo da ikusgai Alegiako kultur etxean

E. Maiz Alegia

Alegian udazkenerako antolatutako kultur ekitaldiak amaitzeko, *Emakumea, etorkina, bizilaguna* erakusketa jarri dute kultur etxean. Emakumeak dira guztiak, eta hainbat jatorrikoak dira. Guztiak Euskal Herrian bizi dira, eta bakoitzak izan duen esperientzia kontatzen du. Adin eta herrialde ezberdinetakoak dira emakume guztiak. Zailtasunak izan arren, aurre egin eta nola bizi diren aipatzen dute.

Hilaren 20a, asteartea, bitartean edukiko dute erakusketa jarrita. 10:00etatik 13:00etara, eta 15:00etatik 21:00etara izango dira atek zabalik.

Emakumea eta etorkina izanagatik ere, bizilagun ditugu gurean



Panel bakoitza emakume bati dagokio, beren esperientzia kontatzen dute. E. MAIZ



Hilberriak



JAVIER BEGUÉ ELOSEGI
(‘Tamarindo’)



Anaia-arrebak eta hilobak

BEASAIN, 2011ko abenduaren 14a



JOXEPI BELDARRAIN KARRERA



Elkartea irekitzeko
zuk ereindako hazitik
urtero jasotzen ditugu fruituak

- Beti gogoan -

Zazpi Iturri Elkarte

AMEZKETAN, 2011ko abenduaren 14an



JOXEPI BELDARRAIN KARRERA



- Goian bego -

Ez nau izutzen negu
hurbilak
uda betezko beroan
badakidalako irauten duela
orainak ere geroan.

ZURE LAGUNAK
Pilar, Inma, Begoña, Maxux, Nekane, Lurdes, Gurutze.

TOLOSA, 2011ko abenduaren 14an

Parekidetasuna gizarteko zeharlerro izateko lanean ari dira udal ordezkariak

Emakumea subjektu izatera pasatzeko, berdintasunak «zentrala» izan behar duela dio Josebe Iturriozek

Itzea Urkizu

Aurrera begirako lanak parekidetasunean burutzeko bidean, *Parekidetasunean formakuntza* izeneko lehen hitzaldia izan zen herenegun, udaletxeko pleno aretoan. Politikariei begira antolatutako ekimena da, «baina herritarra oso politikaria izan daitekeen neurrian, herritar guztiei irekia ere bada» Josebe Iturrioz berdintasun teknikariak azaldu zuenez. Asteleheneko saioa ostiralekoak osatuko du, eta bertan, Bilgune Feministako Miren Aranguren izango da hizlaria.

Hitzaldi edo formakuntza honen helburu nagusia, berdintasunarekiko «edo feminismoarekiko» grina sortzea dela nabarmendu zuen Josebe Iturriozek. Bide horretan, beharrezko kontzeptutzat azaldu zuen *mainstream* deritzona. Ildo orokorren garrantzia aldarrikatzeko erabiltzen den hitza da, zeharlerroekin edo transbertsalitatearekin estuki lotuta dago kontzeptua. Horrela beraz, parekidetasuna edozein eremutako ildoan izateko beharraz aritu zen Iturrioz: «Garrantzitsua da transbertsalitatea jorratea, eta benetan lortzea». Berdintasunak zentrala eta errokoa izan behar duela azpimarratu zuen.

Emakumea gizartean

«Izan zaitezke beltza, txiropa edo ijitoa, eta diskriminatua izan. Baina diskriminazio horien barruan ere, emakumea eta gizona beti maila desberdinean egongo dira», azaldu zuen Iturriozek. Emakumea, emakume jaiotzeagatik, sekula subjektu ez dela izan aipatu zuen; objektua dela baizik.

Honen harira, patriarkatu hitzaren erabilera ekarri zuen gogo-



Politikariez gain, zenbait herritar ere bertaratu ziren pleno aretora. L. URKIZU

ra. Lehenengo aldiz, monarkia absolutuaren aurka egiteko erabili zuten 'patriarkatu' hitza. Gaur egun, gizartearen erroan dagoen kontzeptutzat du Iturriozek; hitzak erabilera moderno du. Hala ere, aspaldiko garaietara begira jarri, eta emakumearen egoerari

Tolosako berdintasun ordenantza gaiari heldu zion Euskal Herriko lehena izan zen

begiratu, denborak gauzak aldatzen dituela gezurra da hizlariaren esanetan: «Lan egin behar da horretarako».

Emakumea eta gizonaren arteko parekidetasuna lortzeko egin den eta egingo den lanaren harira, 'diskriminazio positiboa' izan zuen hizpide Josebek Iturriozek. Azken urteotan hainbat testuingurutan erabili ohi den kontzeptua da berari, baina juridikoki ez da erabat zuzena: «Akzio positiboa deitu beharko litzaioke, orain diskriminazio positiboa deitzen

zaion horri». Honen harira, askotan akzio positibo hauek gaizki ikusiak edo behartuta eginak direla entzuten duela aipatu zuen; emakumeen partaidetza bermatzeko, ordea, beste ezer ezin dela egin uste du udaleko berdintasun teknikariak. Izan ere, «emakumeak, gizarte honetan, ez dira publikoan hitz egiteko, edo bizitza publikoan egiteko heziak izan».

Legeen mundua

Azken hamarkadetan, generoren gaiari loturiko zenbait lege sortu izan dira. Espainiako Gobernuak, zehazki, gai honi heltzeko hiru lege ditu: Berdintasunerako Legea, 2005. urtekoa; Berdintasuneko Lege Organikoa, 2007an sortua; eta, azkenik, 2008ko abenduaren 28an sortutako Indarkeriaren Aurkako Legea.

Tolosako ordenantza

Tolosako Udaleko Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ordenantza, parekidetasunaren gaiari heldu zion Euskal Herriko lehen ordenantza izan

zen, eta aipaturiko hiru lege horiek izan zituen oinarri, herriko beste hainbat ezaugarriekin batera. Guztira 59 artikuluz osatutako ordenantza da, eta Josebe Iturriozek guztiak ez direla betetzen azaldu zuen: «Gure helburua, denborarekin atal guztiak betetzea

Emakumezkoek burutzen dituzten lanetan, tradizionalki ez da gehigarri izaten

da. Baina beti izaten dira lehentasunak, eta erronka bat da gauzak betetzea eta nola beteko diren erabakitzea».

Ordenantzako IX. kapituluaren izenburua honakoa da: Hizkuntza sexistarik eta estereotiporik ez erabiltzea. Hemen, irudi eta hitzen garrantzia nabarmendu zuen Iturrioz hizlariak: «Batzuetan, matxista izan gabe ere, nahi gabe egiten ditugu zenbait gauza, gizarte honetan haziak garelako». Hemen, euskararekin egiten den bezala, esaterako, panfleto, kar-

tel, dokumentu edo edozein gaudetan, generoaren gaia begiratu egin behar dela azpimarratu zuen Iturriozek.

Hari honi tiraz, Genero inpartua udaleko araudi eta jardueren izenburua duen kapituluari heldu zion hizlariak. Kasu honetan, prozedurak konplexuak direla nabarmendu zuen Josebe Iturriozek: «Udaleko aurrekontua berdintasunetik egitea, adibidez, oso zaila da. Baina egokiena da, genero inpartua neurtzeko. Gaur egun, ez hemen eta ez inon, ez da aurrekontua era erakatuan banatzen». Adibide gisa, kiroltako diru laguntzak erabili zituen: «Futboleko, esaterako, errealitate bat da gehienak gizonezkoak direla. Beraz, kiroltara bideratutako diruaren %80a futbolari emango bagenio, ez litzateke egokia genero ikuspegiaren aldetik».

Udaleko langileekin ere, antzeko zerbitu gertatzen dela azaldu zuen Iturriozek pleno aretoko hitzaldian. Ordenantzaren XI. kapituluaren izenburuak honela dio: Udal langileen eta zerbitzu-enpresetako langileen berdintasuna bai enpleguari dagokionez, bai bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeari begira. Hemen, garbitzaileen adibidea erabili zuen Iturriozek: «Udaletxeko areto eta bulegoak garbitzen dituzten gehienak emakumezkoak dira, eta brigadako langileak, berriz, gizonezkoak dira gehienak. Azken hauek, gehigarri gehiago izaten dituzte soldatan, lan baldintzak direla medio». Emakumezkoek burutzen dituzten lanetan, tradizionalki soldatan gehigarri ez dela izaten azpimarratu zuen.

Udaleko jarduerak generoaren ikuspegitik lantze horretan, Tolosako eragileak ere hizpide izan zituen Iturriozek. Bere ustez, emakumeen parte hartzea bermatzen duten eragileak bultzatu behar dira: «Horrek ez du esan nahi besteak baztertu egin behar diren. Baina egoera aldatzeko parekidetasuna eta emakumearen parte hartzea sustatu egin behar da».

Horrenbestez, berdintasun ordenantza muturreraino eramaten beharra azpimarratu zuen Iturriozek, eta androzentrismoa islatzen duten irudiak saihestea ere bai.



HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera pare** ditu

Eguberriko kontzertua

Abenduak 17 • Larunbata
20:30ean
Tolosako Leidorren



Tolosako Orkestra
Orkestra de Tolosa

harpidedunak
TXOKA hitza

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

Abenduak 17 • Larunbata
20:00etan
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Fuenlabrada
saskibaloia partida



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**



Gertu... 24 H..
T O L O S A K O
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI SULOABEA

943 670 040

www.funerariavascongada.com



FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK



→ **Laburrak**

Gpuntuo finalera joateko autobusa jarri dute

AMEZKETA › Igandean izango da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala eta Amezketa-ko Bertso Eskolak autobusa antolatuta bertara joateko. Irteera 12:00etan izango da herriko plazatik, eta autobusez joan nahi duenak 5 euro ordaindu beharko du. Izena emateko epea, bihar, hilaren 15ean, amaitzen da. Izena emateko orriak, tabernetan jarri dituzte.

Telleriak entziklopedia bat aurkeztuko du 20:00etan

TOLOSA › Mikel Telleriak, gaur 20:00etan Tolosako lehenengo entziklopedia aurkeztuko du, Kasino elkartearen *La Enciclopedia General básica de Tolosa* entziklopedia lehenengoa eta bakarra da. Egileak, bertaratzaren direnen artean entziklopedia aleak banatuko ditu. Beste aleak, udal eraikin publikoetan utziko ditu jendeak doan hartzeko aukera izan dezan.

Udalaren diru kontuak azalduko dituzte, bihar

BIDEGOIAN › Bidegoiango Udalak, bihar 21:00etan batzarra egingo du. Bertan, 2011. urteko diru kontuak argituko dituzte; 2012. urteko aurrekontua itxiko dute, eta udalak gaur egun dituen maileguen berri emango dute. Herriar guztiak gonbidatu nahi dituzte parte hartzera.

Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea, binakakoan

LEITZA › Lau t'erdiko txapelketa bukatu eta dagoeneko aurkeztu dituzte Binakako Txapelketako bikoteak. Bi leitzarrek hartuko dute parte. Abel Barriolak, Irujo izango du lagun; eta Oinatz Bengoetxeak, Apraiz. Lehen partida larunbatean jokatu dute Irujo eta Barriolak, Titin III eta Merino II.aren aurka. Igandean, berriz, Bengoetxea VI. eta Apraizek, Arretxe II. eta Beginoeren aurka izango dute partida.

Hondakinen inguruko irtenbideak eta arazoak argituko dituzte, gaur

Amasa-Villabonako Mintzolan, Zero Zabor taldekoek, 'Guk sortu, guk kudeatu' hitzaldia emango dute 19:00etan

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Azken urteetan asko hitz egin da Gipuzkoako hondakin inguruan, eta orain, pil-pilean dagoen gaia da. Hori dela eta, Amasa-Villabonako eta Zizurkilgo Zero Zabor taldeek *Guk sortu, guk kudeatu* hitzaldia antolatuta dute. Gaur, Mintzolan, Subijana etxean, izango da 19:00etatik aurrera.

Hondakinen gaiaren inguruan dagoen informazio eza ikusirik antolatuta dute hitzaldia. «Herriarrok arazoa eta irtenbidea zein den jakiteko eskubidea eta beharra dugu», diote Zero Zabor taldeetatik. Horretarako, Gipuzkoa



Duela egun batzuk Lizartzan eskaini zuten hitzaldia. HITZA

Zero Zaborren laguntza izango dute. Hitzaldian, edozeinek izan ditzazkeen zalantzak, galderak, proposamenak... egiteko aukera izango da. Hondakinen arazoa handia da, eta eztabaidatzeko aukera ere emango du. Era berean, gaiaren inguruan interesa duen edonork parte har dezake.

Hondakinen kudeaketa alter-

natiboez hitz egingo dute. «Birziklapen tasa hirukoiztu dezakegu, errausketa plantak sortzeko beharra ekidinez», diote. Zero Zabor filosofiarekin bat egiten dute, hortaz: Murriztu, berrerabili eta birziklatu. Hilabete hasieran, Lizartzan izan zen hitzaldia, eta Tolosaldeko herritarrek erantzun «ona» eman zioten.

'Muturreko eskia Pirinioetan', Kirol Asteari hasiera emateko

Fidel Mendiaren eskutik, bihar 19:30ean Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean izango da lehen emanaldia

E. Maiz Zizurkil

Zizurkilgo Kirol Astea bihar hasiko da. Hasteko Fidel Mendiaren *Muturreko eskia Pirinioetan* emanaldia izango da, eta 19:30ean hasiko da Atxulondo kultur etxean.

Ostiralean, Skate pista jarriko dute Aurrera plazan 17:30etik aurrera. Patinetea hartu eta edonork hurbildu daiteke bertara. Gaine-

ra, begiraleak egongo dira truku guztiak erakusteko, eta ondoren, erakustaldia egingo dute.

19:30ean, zizurkildar kirolariei omenaldia egingo diete Aurrera plazan. Diploma bana jasoko dute: Nerea Amilibia, Aitziber Ibarbia, Iker Karrera, Aitor Cas-tro, Modesta Iraola, Jon Irazu, Halterofilia Taldeak,...

Larunbatean, 12 ordur kirolean 11:30ean hasi eta haurrentzat kirolak eta jokoak izango dira Intxaurren frontoian, eta hamaiketakoa eta opari banaketa ere izango dituzte. 15:30ean eta 16:30ean, alebin eta benjamin mailako futbito txapelketako finalak jokatu ditzuzte Otañoako instalazioetan. Ja-

rraian, Halterofiliako Eguberrietako Txapelketa jokatu da.

22:00etan Haurren Gau Krosa eta 22:30ean Zizurkilgo XV. Gau Krosa izango dira. Haurrek kilometro bat eta helduek 7,5 kilometro egin beharko dituzte. 1996 eta 1999 urte artean jaiotakoek berriz, 2,5 kilometro izango dituzte. Haurrek eskoletan emango dute izena, eta gainerakoek, www.herrikrossa.com helbidean egin beharko dute, edo egunean bertan.

Igandean, 10:00etatik aurrera pilota izango da Intxaurren frontoian. Lehenik Zizurkilgo I. Pilota Txapelketako finalak, eta ondoren, larruzko pilotarekin pala motzean Navarro eta Etxeberria, Arozena eta Unanueren aurka.

Gutuna

Kapitalisten erasoen aurka

Gaur egun, mundu osoko kapitalistek eta beren ordezkariak gauza berbera defendatzen dute: krisiari aurre egiteko beharrezkoa da bizi baldintzetan sakrifizioak egitea. Baina hori bai, sakrifizioak egin behar dituztenak ez dira bankariak eta enpresari handiak, mundu osoan zehar egoera honen aurka altxatzen ari diren langileak eta gazteak baiziki. Euskal Herriatik ere, aurre egin behar diegu kapitalisten eraso publikoaren munduko gainerako zapalduekin batera.

Ikaragarriko ondasunak pila-tzen dituen burgesiari esaten digu, defizit publikoaren eta gastu sozialen murrizketaren sakrifizioa onartu behar dugula "merkatuen" konfiantza pizteko eta handitzeko. Langile klaseari eskatzen dizkiote sakrifizio guztiak, eta horrela, zor publiko guztia azken euroraino langileek ordaintzea nahi dute. Hala ere, langile klasea eta gazteria erakusten ari dira mundu guztian zehar ez daudela prest eraso hauek onartzeko. Ikusten ari garen borroka eta gatazkek gero eta ezaugarri iraultzaileagoak dituzte: herri arabiarretako iraultzak, Greziako borroka, Txileko ikasle mugimenduaren mobilizazio historikoak...

Munduko leku askotan bezala, beharrezkoa da eta posible da Euskal Herrian ere borroka sakontzea.

Honengatik guztiagatik, Euskal Herria Sozialistak kapitalisten erasoen aurka kanpaina bat egitea erabaki du gaztetxetan, auzo elkarteetan eta beste hainbat tokitan hitzaldiak antolatuz. Zuen gaztetxean, auzo elkarteetan, lantegi, ikastetxean edo lokalean honelako hitzaldi bat antolatzeko eskaintza luzatzen dizuegu.

Besterik gabe, eskerrik asko eta zuen erantzunaren zain geratzen gara. Gora kapitalismoaren aurka borroka!

■ **Euskal Herria Sozialista.** Tolosa.



Egin HITZAren harpidedun
abenduaren 31 baino lehen,
eta jaso

Bertako informazioari,
bertako produktuak



MAHALA ekoizlearen
produktu sorta hau

OPARI



Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean IV →

Denborarekin eguneroko hiztegitik hitz batzuk desagertzen joan dira: klase borroka, proletarioen diktadura, marxismo-leninismoa... baina 1970eko hamarkadan jende askok bere egin zituzten ideia horiek. Ibilbide hau gutzia jasotzen du **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK** gaur, 19:00etan Tolosako Zerkausian, aurkeztuko duen liburuak.

Langile mugimendua: klase borroka lehertu zenekoa

Ion Mintegiaga

Politikariekin gertatu zen bezala, 1936ko kolpe militarrek, langile mugimenduko ordezkari garrantzitsuenak jomugan jarri zituen; hauek, maiz, ezkerreko alderdi politikoetako buruzagiak ere baziren.

Eragin handiena PSOEek eta UGTk zuten eta figura nabarmen bezala Enrique de Francisco Jimenez aipatu behar da, Getafetik Tolosara iritsitako langilea. Asociación de Obreros eta Agrupación Socialista sortzeaz gain, Tolosako udalean zinegotzi izan zen, eta II. Errepublikara garaian diputatu, Madril. Grebak eta mobilizazioak bultzatzen bazituzten ere, normalean itunaren alde egiten zuten. Anarkistek eta komunistek muturrekoagoa zen jarraera zuten, baina babes gutxiago zuten, eta ELA-STV sindikatu abertzalea ere ez zegoen hain sustatua. Datuek argi erakusten duten bezala, militarren aurka gerrara joan ziren eskualdeko boluntario gehienak, sozialisten inguruko *Rusia* batailloi mitikoaren barruan antolatuta ziren.

Gerra ostea

Gerrako errepresio eta sakrifizioak barne egiturak txikituta utzi zituen, sozialistak 40 urtez ia desagerraraziz. Sare klandestinoak gutxienekoak betetzera mugatzen ziren, errepresaliatuen familiak diruz laguntzea, adibidez.

Eta zapalkuntza latz horren barruan, Euskal Herrian ezagutu ziren, 1947an, Estatu espainiar oso lehen masa manifestaldi publikoak, maiatzaren 1ean erbesteko Eusko Jaurlaritzak babestutako greba orokor bati ekinez. Zuzeneko lekukoek, artean umeak zirela, Tolosan bizi izan ziren polizi darraldiak gogoan dituzte. Hurrengo erakustaldia 1951n eman zen, baina burua erakusten zen bakoitzean galtzeko arriskua zegoen. Antolakunde klasikoak kolpatuta zeuden. Kontutan izatekoa da, politikagintzan gertatu zen bezala, sindikatu mailan ere talde abertzaleak hobeto iraun zutela denboran. ELAK esaterako, kuota ordaintzen zuten 100 lagun inguru zituen Tolosaldean 1955 inguruan.

Haize berriak

1960ko hamarkadan munduan aldatuta handiak ezagutu ziren, ezkerreko mugimenduek eta langileen aldeko antolakundeek goraldia ezagutu zuten.

Frankismoaren iluntasunean itota, nazioarteko erreferentziak ase ezinezko iturri bihurtu ziren euskal langileentzat. CCOO sortu berria zen eta Sindikatu Bertikal ofizialaren gainean alternatiba bezala gorpuzten joan zen, nagusiki komunisten eta ETaren babesarekin.

Hamarkada horretan Euskal Herriak jauzi demografiko handia bizitu zuen. Industria ekoizpea asko hazi zen eta metalaren in-

guruko lantegiak ugaltu egin ziren. Makinak mugitzeko lan indarra herri txikietakoa baserrietatik eta Estatu espainiarreko etorkinengatik etorri zen, eta pentsamendu kolektiboan nahiz eguneroko bizitzan, eragin zuzena izan zuen.

Langileria antolatzen hasi zen eta kontraesanak azaltzen hasi ziren. ETA, hasiera batean abertzaletasunari arnasa eman nahi zion adierazpide bat bezala sortu bazen ere, segituan langileen errealtateari erreparatu beharrean suertatu zen, eta arazoari eman beharreko erantzunak eszisis ugari ekarri zizkion.

Bestalde, Estatu ikuspegiko ezkerreko joerek sentimentu abertzale zabaldua zuen langileri baten aurrean aurkitzen ziren, eta maiz, Estatuko beste tokitan onartzen ez zituzten aldarrikape-



Emua enpresako langileek egindako greba bateko irudia. HITZA

nak bere egitera behartuta ikusten ziren.

Borroka moldeak eztabaidarako beste aitzakia bat ziren. ETAK gatazka sozial askotan jardun armatua erabiltzearen alde egiten bazuen, ezkerreko mugimendu askok langileria eta herritarrak ezin zirela ordezkatu salatzen zuten, masa mobilizazio hutsaren alde eginez.

Tolosaldeko grebak

1974 eta 1975 urteetan Tolosaldea eta Nafarroa langile greba gogorrek baldintzatu zuten. Emua, Mustad edo Voitheko grebak mugarrak izan dira langile mugimenduen historian. Gatazka sozial hauek ezkerreko mugimenduen barruko aniztasunaren adierazle izan ziren eta kontraesan haiek eztabaida dialektiko bizi eta aberatsak utzi zituzten,

askotan dogmatikoak zirenak. Azpimarratzekoa da, eskualdean bitarteko greba hauen ondorioz sortu zela ADEGI Gipuzkoako enpresari enordezkari gisara, gatazkei akordioaren bitartez irtenbidea bilatzeko aukera moduan.

Bestalde, langile ugarik, beren jardunarengatik atxiloteta, tortura eta espetxea ezagutu zituzten bezala, enpresari askok hauen erradikalizazioaren ondorioak ere jasan zituztela esan behar da, mehatxu, sabotajea edo euren aurkako atentatuen bitartez. Franco hil eta trantsizioan sakondu ahala, gatazka sozialak behera eta gatazka politikoak gora egin zuten etorkizuneko egitura-keta politikoa auzitan zegoen garaian.

Eskualdeko langileak LAB eta ELA sindikatuetan afiliatzen joan ziren masiboki.



ORTko 1972. urteko batzarretako batean ateratako argazkia. HITZA

GONBIDATUTA ZAUDE

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza**

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean liburuaren aurkezpenera.

GAUR, asteazkena, 19:00etan Tolosako zerkausian

Aurkezpenaren amaieran, nahi duenak liburu eskuratu ahal izango du.

Eserlekuak eta berogailua izango dira. Ondoren, lunch-a eskainiko da.





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Mikel Telleriak Tolosa-ko lehen entziklopedia aurkeztuko du gaur, 20:00etan Kasinon. *Egileak La Enciclopedia General Básica de Tolosa* lana banatuko du gerturatzan diren artean.
- **Ibarra.** Ibarra kirol elkarteak bigarren sei hilabeteari dago-kion batzarra egingo dute ostiralean, hilak 16. 21:00etan hasiko da, eta elkarteak zuzendaritzak garaiz iristeko eskatu du, eta baita ahalik eta partaidetza handiena izatea.
- **Villabona.** Oinkari dantza taldearen Dantza Astearen barruan gaur, 19:30etik aurrera Gurean, Esne Beltza taldeko Xabi Solano eta Zigor DZ, eta Baga-Biga musika etxeko Ritxi Aizpuru izango dira *Euskal Herriko rock musikaren ikastaroa* izeneko tailerra eskaintzen.
- **Berastegi.** Hasi dira abenduaren 16, 17 eta 18an egingo duten Elkartasun Azokarako materiala biltzen. Hilaren 15a arte egongo da aukera. Aipatu egunetan aparkaleku azpiko lokalera joan behar da 16:30etik 18:30era.
- **Ibarra.** Ibaratik Misio Taldeak

abenduaren 17tik 23ra izango den Merkatu Txikirako materiala bilduko du ostiralerako bitarte. 17:00etatik 20:30era joan behar da plaza atzean dagoen parrokiko lokalera.

- **Tolosa.** Eskuratu daitezke jada, hilaren 17an Tolosako Orfeoia eskainiko duen Eguberri kontzerturako sarrerak. Kontzertua Leidorren izango da, eta sarrerak 12 euro balio du. Sarrerak orfeoizaleen bidez, Leidorreko leihatilan edo Orfeoia Nafarroa etorbideko egoitzan eskuratu daitezke.
- **Zizurkil.** Kirol batzordeak antolatuta Zizurkilgo kirolarietara omenaldia egingo diete ostiralean, hilak 16. Herritarrek kirolariak proposatzeko aukera dute Kirol batzordearekin harremanetan jarrita.
- **Villabona-Zizurkil.** Katea Etxeak eta Zizurkilgo Gaztezu-
lok graffiti ikastaroa antolatuta dute hilaren 27rako, Zizurkil. DBH 2, 3 eta 4ko gazteek bi gaztekuetan eman dezakete izena.
- **Tolosa.** Udalak Gipuzkoatik kanpoko kartzeletan dauden presoen familiei bidaia gastuei aurre egiteko diru laguntza es-

kaerak aurkezteko epea ireki du. Hilaren 30ean bukatuko da eskaerak egiteko epea.

- **Tolosa.** Tolosan ordezkariak dute eta jarduerak Tolosan bertan dute Gobernu Kanpoko Erakundeek diru laguntzak eskatzeko epea bihar amaituko da, 13:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Alegia.** SOS Razismok *Emakumea, etorkina, bizilaguna* erakusketa jarri du kultur etxean. Hilak 20 arte ikusia ahal izango da.
- **Ibarra.** Abenduaren 15a bitarte *Jatorri* anitz erakusketa ikusi daiteke, kultur etxean. Argazki eta lanak 10:30etik 13:00etara, eta 15:30etik 21:00etara ikusi daitezke.
- **Tolosa.** Mundu Bat Tolosan izeneko kultur arteko topaketen barruan *Babel: munduko ipuinak, munduko kulturak* erakusketa ikusi daiteke egun hauetan haur liburutegian, 17:00etatik 20:00etara.
- **Tolosa.** Fronton kafetegian Naiara Delgado artistaren lanak ikusi eta erosi daitezke egun hauetan.

Larunbatean irekiko dute Ibarako Merkatu Txikia

Ostirala bitarte jasoko dute materiala parrokiko lokalera, 17:00etatik 20:30era bitarte

larekin osatutako azoka hilaren 23a bitarte egongo da zabalik, goizez, 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean, 17:00etatik 20:30era. Azokan egongo den materiala uzteko azken eguna, dena den, ostirala izango da, eta horretarako elkarteak San Bartolome plazan duen parrokiko lokalera joan behar da. Azoka ere leku berean izango da. Jasotzen duten dirua Ekuador, Honduras eta Indian dituzten proiektuetara bideratuko dutela jakinarazi dute.

Rebeka Calvo Ibarra

Ibaratik Misio Taldeak larunbatean, hilak 17, zabalduko du Egu-berrietako Merkatu Txikia. 10:00etan zabalduko dituzte atekak, eta bigarren eskuko materia-



Larunbatetik hilaren 23a bitarte egongo da zabalik Merkatu Txikia. HITZA

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. Telefonoa: 943 67 36 49.
- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!
June (Anoeta). Atzo 7 urte!
Zorionak etxekoan partetik.

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Zatoz **hitza**ren egoitzara gure **arropa berriak probatzera**

Helduentzako Jertsea: 29,5 €

Kolorea: beltza
Gizon eta emakumeen modelook
Neurriak:
• Gizonak: S-M-L-XL-XXL
• Emakumeak: S-M-L-XL

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza**

Araba Etorbidea, 5 behea (Tolosa) • Tel: 943-65 56 95

INKERNU
jantzigintza

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako mozorroak

Gernikako Arbola 1 behea • **TOLOSA** • 943 24 43 64 • elvinkernu@gmail.com